

txi kitto!

*"emon eskua
euskeriari"*

abenduak 3

EUSKARAREN EGUNA





Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri, Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta Eibarko ikastetxeetako
ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Banaketa arduraduna

Ainhoa Luz.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Txikis Teak



- ✓ Mozkorti bat izozki-denda batera joan zen. Mozkortiak dendariari esan zion:
 - Izozki bat nahi dut.
- Dendariak galdetu zion:
 - Zein zaporekoa?
- Eta mozkortiak erantzun:
 - Ez zait inporta, beti erortzen zait-eta!


- ✓ Gizon bat medikuarengana doa eta esaten dio:

- Ez dakit zer gertatzen zaidan, burua ikutzen dudanean min daukat, sudurra ikutzen badut min ere; hanka ikutzen badut ere bai! Zer daukat?
- Ba hatzamarra apurtuta daukazula uste dut.



- ✓ Jaimitoren amak esan dio Jaimitori:

- Etor zaitez, aita eta bion arteko ezkontzaren argazkiak erakutsiko dizkizut! Begira! Hau da zure aita!
- Hori?? –erantzun dio Jaimitok.
- Nor da orduan gurekin bizi den lodikote burusoil hori??



Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



- ✓ Kartzelara iritsi berria den batek beste bati galdetzen dio:
 - Eta zu, zergatik zaude hemen?
 - Ez didatelako ateratzen uzten.



✓ Doaz bi eta eskumakoa jausten da, eta erdikoak esaten du:
- IIIIUUUUUUPPPPIIIIIIIIII! Behingoz ez naiz ni izan!



✓ Matematikako azterketa bukatzeko hamar minutu falta direla, andereñoa oharra ematen ari da:

- Matematikako ariketen emaitzak ontzat eman eta niri entregatu baino lehen, gutxienez hiru aldiz begiratu behar dira. Handik minutu erdira, Patxiku Txiki altxatu eta azterketa andereñoari entregatzera abiatu da.

- Andereño, nik ariketa hau hamar aldiz begiratu eta egin dut.

- Oso ondo Patxiku, oso ondo –esan du andereñok

harritura Patxikuren interesa ikusita.

- Eta hona hemen hamar emaitzak, andereño.



✓ Elefante batek zera galdetu dio gameluari:

- Zergatik dituzu titiak hain goian?

- Begira nork galdetu duen, zakila aurpegian duenak.

Denborapasak

Hizki-zopa

HIZKI ZOPA IZENAK AURKITU

Miren

U	i	R	A	i	A	H	i	E	T	A	E	P	T	H
M	D	Z	N	I	L	B	P	I	O	E	Z	U	M	O
R	E	U	R	i	K	E	A	R	N	T	i	R	i	i
L	i	T	A	S	i	R	A	E	S	V	T	A	K	i
A	S	A	J	O	N	G	L	E	O	A	B	B	E	A
i	D	A	S	D	V	E	O	A	A	i	A	T	L	E
S	N	A	K	O	S	M	L	R	E	T	K	O	K	i
D	V	B	N	A	O	S	E	T	A	A	E	A	P	B
E	A	P	G	O	M	A	R	T	I	N	A	L	i	A
Z	E	i	E	R	G	E	K	S	T	A	i	i	Z	i
Z	H	B	T	i	H	H	Z	V	i	N	A	L	R	S
R	F	R	H	A	D	E	O	P	T	P	A	V	L	A
X	O	R	R	O	N	B	Z	K	A	X	H	U	L	A
M	A	F	A	G	i	A	B	B	i	E	L	U	L	E

7 izenak

- JON
- PAULA
- MARTIN
- ELENE
- AITANA
- MIKEL
- IRAIA



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Ixone Txopitea** izan da. Argazkian duzue ipuinarekin eta ...eta kitto!ko sudaderarekin. Zorionak Ixone!



7 desberdintasunak




**BIDALI ERANTZUNAK ABENDUAK 4 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena

AdinaTel.....

Denborapasak


Gurutzegrama




FRUTAK

- 1 TXIMINOAK JATEN DUTE
- 2 BERDEA ETA GORRIA IZAN DAITEKE
- 3 BOB ESPONJA BIZI DEN LEKUA
- 4 KOLORE LARANJAKO DA PIZTA EHAN DIZUT JADA
- 5 SHEZUR ANDIA DAUKA ETA AZAL LEUN

Hizki-zopa





IZENAK

Andrea

ABIZENA

Gonzalez

JAIOTERRIA

Eibar

JAIOTZE-DATA

1992ko abenduak 2

- Definitu bi hitzetan gitarra:
Soinua eta edertasuna.

- Gitarra ez den beste musika-
tresna bat? Biolontxeloa.

- Betetako amets bat?
Orain nagoen moduan egotea.

- Eta betetzea nahiko zenukeen
amets bat? Sekretua da.

- Zer eskaintzen dizu musikak?
Lasaitasuna.

- Nolakoa da zure egun perfektua?
Eguraldi onarekin plan berezi bat
egitea.

- Zer nahiago, haragia ala arraina?
Haragia.

- Fruta bat? Marrubia.

- Ametsetako oporrak non?
Tailandian.

- Abestirik gustukuena?
Sabina edo Jorge Drexler-en
edozein.

- Musika-estilorik gustukuena?
Jazz, latin, rock... Egunaren
arabera.

- Zer da bizi zaren lekuetatik
(Portugal eta Alemania) gehien
gustatzen zaizuna? Paisaia.

- Eta gutxien?
Jendez josita daudela.

- Urtarorik politena? Uda.

- Birziklatzen duzu? Bai.

- Animaliarik baduzu? Ez.

- Umetako ikasgairik gustukoena?
Matematika.

- Eta gutxien gustatzen zitzaizuna?
Gizarte.

- Itsasoa ala mendia? Itsasoa.

- Gazia ala gozoa? Gazia.

- Gitarra jotzeko lekurik onena?
Etxea.

- Ikusi duzun pelikularik onena?
Billy Elliot.

- Telebistako saio bat?
Izan Invictus.

**ANDREA
GONZALEZ**

Oso gaztea izan arren, gitarra-jole entzutetsua dugu Andrea Gonzalez eibartarra. 7 urterekin hasi zen ikasten bere ama Ana Mariarekin eta 8 urterekin eman zuen lehen kontzertua. Orduz geroztik, ez da gelditu. Mundu osoan ematen dihardu kontzertuak, hainbat CD grabatu ditu eta sari ugari eskuratu. Portugal eta Alemania artean bizi da, baina hil honetako 24an, barixakua, Coliseon entzuteko aukera zoragarria izango dugu.

Emon eskua euskeriari!

Abenduaren 3an, domeka, Nazioarteko Euskararen Eguna ospatuko dugu, eta urteroko ohiturari jarraituz, Eibarren ere modu berezian ospatuko dugu egun garrantzitsu hori. Euskerari eta elkarri eskua emanez eta jai-giroan murgilduta, horrela ospatuko dugu eibartarrok EUSKARAREN EGUNA!

Auzoetatik Untzagaraino kantuan

Euskararen Eguna ondo baino hobeto hasteko kantuan egingo dugu. Auzoetatik irtengo gara (Urki-Ipurua, Amaña-Legarre, Urkizu-behealdea) eguerdiko 12:00etan, kaletik joango gara kantuan, Untzagaraino iritsi arte, eta han ere abesten jarraituko dugu.

Horma-irudia

12:30etatik 14:00ak arte horma-irudia osatuko dugu. Oihal zatiak prest egongo dira Untzagan, eskuak margoan busti eta oihalean inprimatuko ditugu, euskerari eskua ematen diogula irudikatuz.



Aurten egun osoko jaiarekin ospatuko dugu Euskararen eguna.



Eguerdian horma-irudia osatuko dugu Untzagan.

"emon eskua euskeriari"

12:30
14:00
Horma irudia
Untzagan

14:30
Herri Bazkaria
Karpan

16:00
Erronomia
Parrapas taldearekin

...eta auzoetatik Untzagaraino kantuan joango gara!

abenduak 3

Antolatzailea: Eibarko Euskalgintza

Elkarlanean: AKEBARI

EUSKARAREN EGUNA

Herri-bazkaria eta erronomia

Eta behin horma-irudia osatu eta gero, herri-bazkarian elkartuko gara, Untzagan egongo den karparen barruan. Bizimiña elkarteak prestatutako paella, postrea eta kafea izango da menua. Bazkalostean dantza egiteko aukera paregabea egongo da 16:00etatik aurrera Parrapas erronomia-taldearen eskutik.

Aurten egun osoko jaiaren oparituko diogu eibartarrok euskerari!

Ez egin kale, emon eskua euskeriari eta zatoz Euskararen Eguna ospatzera!



ITURBURU ikastetxeak Errebaleko erabilera anitzeko eraikinaren IZENA eta irudi korporatiboa aukeratzeko lehiaketan izena eman du. Urriaren 16an, astelehena, goizeko 10:30ean, gure ikastolako 3 ikasle eta Liburutegiko arduraduna, udaletxean egin zen lehenengo bilerara joan ziren. Bilera hori informatiboa izan zen eta laster lanean hasi beharko dugu. 6. mailako ikasleek izenak proposatu dituzte eta guztien artean bat bakarra aukeratu dute. Horretarako merkatuaren historia apur bat ezagutu eta proiektuaren ezaugarriak ikusiko dituzte.

ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxetik, kaixo lagunok! Hemen gaude berriz ere, prest ditugun ekintza pila baten berri emateko. Urria amaieran LHko 5. mailakoak Portaleara joan ziren "Tramankuluak ikasgelan" antzezlan ikustera eta 3. mailako ikasleak Jazinto Olabeo ludoteka ezagutzera joan ziren. Azaroaren 10ean LHko 5. eta 6. mailakoek Madariaga Dorretxea bisitatu zuten. Azaroaren 13an Gaztañerre ospatu genuen. Abestiak, bertsoak eta gaztainak izan ziren ospakizunaren muina. Eta azaroaren 29an San Andres azoka izango dugu. Ikasle, irakasle eta guraso, denok elkarrekin tarte polita izango dugu egunaz gozatzeko. Mila esker beti laguntzeko prest dauden guraso hauei!



Ikasturteko txangoei hasiera emateko **URKIZU** ikastetxeko 3. eta 4. mailakoak Pagoetara joan ziren: bertan, elikagai desberdinak



aztertu zituzten eta ogi goxo-goxoa egiteko aukera izan zuten. Horrez gain, ur-errot bat ezagutzeko aukera ere izan zuten. 5. mailako umeak, "Tramankuluak eskolan" emanaldia ikustera joan ziren Portaleara. Urriaren azken astean, eta berrikuntza bezala, Lehen Hezkuntzako ume guztiek eta HHko 5. urtekoek, Capoeira ikastaroa izan dute horretan aditua den irakasle batekin, polita benetan! Eta Euskara Kanpainei hasiera emateko, "Ezetz asmatu" lehen lehiaketa antolatu dugu, "Animen gaua" gaiari lotuta.

ALDATZEko 4., 5. eta 6. mailako ikasleak Ermuako Eskolabarriko 5. mailako ikasleekin batera Arratera joan ginen. Goizean poliki-poliki oinez igo ondoren Arraten lasai jolasean



aritzeko aukera paregabea izan genuen! Eguraldia ere aparta izan zen eta primeran pasatu genuen!!

Kaixo lagunak! **LA SALLE**ko 1. eta 2. mailakoak igeriketa-ikastaroa egin dute urrian eta diplomarekin bueltatu dira, olinpikoak bezala! 5. urtekoak Sastarrainen egon ziren gaua pasatzen, hango ikuilua eta kobazuloak ezagutzen eta zaldian ibiltzeko aukera izan zuten! 2. mailakoak, berriz, Lurraskan izan ziren ogia egiten eta baratzean jasotako janaria eman zieten animaliei.



AMAÑAko ikastetxean aurten ere hasi gara baratzea antolatzen. Momentuz lurra harrotu dugu eta lur berriarekin nahastu ondoren porruak eta aza landareak jarri ditugu, eta haziak ere jartzen hasi gara. Marrubilandare gehiegi sortu direnez, 5. eta 6. mailako ikasleek bakoitzak bere pota batean landatu du. Ikusiko dugu zer ateratzen den!!!



Argazkian ikusten den bezala konposta egiten dugu belar txarrekin eta alferrik galtzen diren landareekin.




PINTZAK

Jolasteko panpina gisa erabil ditzakezu, dekoratzeko pintza gisa opari baterako, edo etiketa bati heltzeko, edota iman txikiak atzealdetik itsatsita, hozkailuan jar ditzakezu paperei eusteko.



MATERIALA

- ✓ Paper polita
- ✓ Errotuladoreak
- ✓ Itsasgarria edo kola zuria
- ✓ Egurrezko pintzak
- ✓ Guraizeak



PAUSOAK


- 1.- Pintzaren tamainako paper-zatiak moztu eta itsatsi.
- 2.- Utzi cm erdia libre goialdean paperik gabe. Izan ere, alde horrek aurpegitxoak margotzeko balioko digu.
- 3.- Errotuladore beltzarekin ilea eta begitxoak marraztu, eta punta fina duen errotuladore gorriarekin ezpainak marraztu.
- 4.- Koloreteak ere jar diezaiokezue errotuladore arrosa argiarekin. Kitto! Prest dituzu zure panpinak!

Ti-ta!

KARTOIZKO MIKROFONOA

Atera barrenean daramazun kantari hori eta abestu zuk prestatutako mikrofonoarekin. Eta zarata handirik atera gabe gainera! Mikrofonoa kartoizkoa da-eta. Mikrofonoa egin ahal izateko kartoizko edo sukaldeko tutua, aluminiozko papera, margoak eta itsasgarria besterik ez dituzu behar. Lehenik eta behin kartoizko edo sukaldeko tutua erabili mikrofonoaren gorputza egiteko. Gero, tutua margotu. Eta azkenik, esfera egin aluminiozko papera erabilia, eta tutuari itsatsi. Kolore asko erabiltzen badituzu, ikusgarriagoa izango da mikrofonoa.





BAKAILAO-BOLATXOAK

OSAGAIK (4 LAGUNENTZAT)

- ✓ 500 g patata (zurituak)
- ✓ 250 g bakailao gatzgabetu
- ✓ 2 arrautza
- ✓ Gatza
- ✓ Gurina
- ✓ Oliba-olioa
- ✓ Ogi birrindua



PAUSOAK

- 1.- Zuritu patatak, zatitu eta egosten utzi ur eta gatzarekin 20 minutuz. Ura kendu eta gorde.
- 2.- Ur pixkat irakiten jarri eta bakailaoa jarri bertan. Irakiten hasten denean kendu sutik, ura kendu eta gorde.
- 3.- Txikitu patata egosiak gurin pixka bat gehituz. Moztu bakailaoa zati txikietan eta patatekin nahastu.
- 4.- Aurreko nahasketari gehitu bi arrautzen gorringoak eta ondo nahastu. Hozkailuan sartu une batez, bolatxoak errazago egiteko.
- 5.- Bi zuringoak elur-punturaino irabiatu.
- 6.- Oliba berotu. Bolatxoak egin eskuekin forma emanaz, pasatu zuringotik eta ogi birrindutik eta frijitu.

URDAIAZPIKO-GAZTA ENPANADILLAK



Zartaginean egin beharrea sandwicheran edo gofreak egiteko tramankuluan egingo ditugu. Jarri sandwicheran edo gofreak egiteko tresnan enpanadillak egiteko olata (oblea) handi bat, gainean urdaiazpiko egosia, gazta eta beste olata bat. Itxi eta itxaron egin arte. Zerbitzatzeko triangelu txikietan moz ditzakezue.

AMAÑA herri ikastetxeko 3. mailakoek munduari errepassoa eman diote goitik behera, Europatik Asiara eta Amerikatik Amañara. Gure herria ondo ezagutzeko aukera izan dute, bai klasean bai herriko kaleetan zehar ibiliz. Orain Amaña auzoak ez du sekreturik ikasle hauentzat.



Nolako lana egin duzue Eibar ezagutzeko? Zer gustatu zaizue gehien?



**Danel
Molpeceres**
8 urte

Lehenengo mundua ezagutu genuen, gero Europa, bertako herrialdeak ondoren, handik Euskal Herriko zazpi probintziak, ostean Eibar eta azkenik Amaña. Aurretik ezagutzen nuen zerbait horren inguruan, baina orain askoz gehiago. Euskal Herriko probintziak ezagutzeko izan da gehien gustatu zaidana.



**Unai
Ruiz**
8 urte

Auzo motak ezagutzeko oso polita izan da. Adibidez, Amaña langile-aztoa dela jakin dugu, lantegietatik gertu dauden etxeak dituelako (ALFA adibidez). Planoa, eskala, legenda... zer diren ikasi dugu. Ni Eibarko zerbitzuak planoan kokatzen aritu naiz: kirol-guneak, botikak, autobus-geltokiak, eskolak, eta abar.



**June
Peribañez**
7 urte

Nire lana Eibarren zenbat zerbitzu dauden zenbatzea izan da: suhiltzaile-parke bat, hotel bat, bi taxi-gune, hiru gasolindegia, bost Euskotren geltoki (Amañan bat)... Taldeka egin dugu lan eta taldekide bakoitzak ardura bat izan du. Nirea taldean isiltasuna mantentzea izan da, eta ez da batere erraza! Gero, laguntzailea ere izan naiz, beti edonori laguntzeko prest.



**Lamiaa
Masloui**
8 urte

'Sugeak' taldeko koordinatzailea izan naiz eta karpeta batean taldean egindakoak gordetzeko ardura eduki dut. Eibarko auzoak buruz ezagutzeko aukera izan dugu: Aginaga, Legarre, San Kristobal, Urki, Urkizu, Mandiola... Kale askok osatzen dute auzo bat eta aipatutako horietako batzuk ezagutu ditugu. Asko gustatu zait irteerak egin ahal izatea.



**Nerea
Diez**
8 urte

Ni 'Amapola' taldeko idazkaria izan naiz eta irakasleak esaten zuen guztia apuntatu behar nuen. Lehen ezagutzen nuen zerbait gai honen inguruan, baina orain askoz ere gehiago. Iaz liburu bat osatu genuen Eibarren inguruan: jaiak, pertsonaia famatuak, mendiak, ibaiak... Herrian zerbait berria egitekotan, niri 'akuaparka' egitea gustatuko litzaidake.



**Izei
Aviles**
8 urte

'Arrainak' taldeko koordinatzaile lanetan ibili naiz ni. Asko gustatu zait Amaña auzoa egin dugun irteera eta 'Amesti' tabernako Maialeni elkarrizketa egin izana. Galderak taldean prestatu genituen eta talde bakoitzeko kide bana joan zen berarengana galderak egitera. Horrez gain, kontinenteen inguruan ikastea gustatu zait.



GRUFALOAREN ALABA
(6 URTEK AURRERA)

Grufaloak alabari esan zion, behin batean, inoiz ere ez sartzeko baso ilun sakonean. Sagu Erraldoi Gaiztoak harrapatuko zuela eta hozkada batean jango zuela bestela. Gau ilunean, elurra ari zuela gogotik, grufaloaren alaba irten zen leize-zulotik. Sagu Erraldoi Gaiztorik ez zen inon existitzen. Berak hori uste zuen, baina egia ote zen?



NILS HOLGERSSONEN BIDAIA MIRESGARRIA (8 URTEK AURRERA)

Iratxo bati barre egin ondoren, Nils bihurriak sorginkeria bat jasan zuen eta izaki ñimiño bihurtu zen, baina animaliekin komunika zitekeena. Hori dela eta, Martinen gainean bidaiatzera animatu zen, abenturaz eta esperientziak beteriko bidaia zoragarri batean, Suediako lur, paisaia eta ohituretatik.



IXON (10 URTEK AURRERA)

Ion du benetako izena, baina Ixon deitzen diote beti isilik egoten delako, halako batean, hitz egitea ere ahaztu duen arte. Etxetik joango da orduan, eta abentura harrigarriak ezagutuko ditu gero, basoan topatzen dituen rock musikari batzuen eskutik.

“PELLO TXOFERRA”
(ALDATZE IKASTETXEA)

ALDATZE ikastetxeokok soka saltoan aritzeko abesti bat proposatu digute. Egin salto Pello txoferrarekin!!!

PELLO TXOFERRA

Peio txoferrak, lere!
Galdetu zidan, lere!
Ea nahi nuen, lere!
Kotxez ibili, lere!
Grazi handiaz, lere!
Erantzun nion, lere!
Nahiago nuela, lere!
Trenez ibili, lere, lere, lere, lere!

BIDEOA:

<http://etakitto.eus/txikitto/aldatze.html>

Jolastokixan jolasian



Azaroak 24, barixakua-

- ✓ Andrea Gonzalez gitarrajolearen emanaldia. 20:30 Coliseon. 8€.

Azaroak 25, zapatua

- ✓ “El hombre de la lluvia” Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren barruan. 17:00 Coliseon. Ikuskizun komiko eta magikoa, ura eta xaboiarekin lagunduta. 5€.
- ✓ “Bizarrudinak” ipuin-kontaketa. 18:00 umeen liburutegian. 5 urtetik aurrera. Doan.



Sanandresak Eibarren

Azaroak 24, barixakua

- ✓ San Andres Bertso Jaialdia. 18:30 Portalean.
- ✓ “Plazara dantzara” erromeria 19:00 T. Etxebarrian.

Azaroak 25, zapatua

- ✓ XV. Txistorraren Eguna. 09:15-22:00 Untzaga plazan.

Azaroak 26, domeka

- ✓ Bakailao Txapelketa 11:00 Untzagan.

Azaroak 29, eguaztena


- ✓ Dantzaldia DJ Xaibor 18:30-21:00 Untzaga plazan.

Azaroak 30, eguena

- ✓ Nekazal azoka 09:30etik aurrera T. Etxebarrian. 12:00etan aizkolari-txapelketak, bertsolari eta trikitilarien emanaldia. 12:30ean Plazara Dantzara erromeria. 13:00etan azoka, pintxo eta kartel lehiaketetako sari-banaketa.
- ✓ III. Argazki rallia Arrate Kultur Elkartearen eskutik.

Euskararen eguna - Abenduak 3, domeka -

- ✓ 12:30-14:00: Horma-irudia Untzagan.
- ✓ 14:30: Herri-bazkaria karpan.
- ✓ 16:00: Erromeria Parrapas taldearekin, karpan.



OLENTZERO, EKARRIKO DIDAZU IPUIN HAU?

Eibarko liburutegian martxan jarritako jokoak

Oinarriak:

- Opari bezala jasotzea nahi zenukeen liburuaren azala edo pertsonaia baten irudi bat egin plastilinarekin (laua, ez hiru dimentsioetan).
- Pertsonaia edo irudia orri Erdiko tamainako kartulina batean egingo da, kartulina hau umeen liburutegian eskuragarri egongo da **azaroaren 23tik aurrera**.
- Bertan liburuaren izenburua eta egilea jarri behar duzu. Atzeko partean zure izen-abizenak.
- Kartulina osoa bete beharko da.

Adina: parte hartu nahi duten ume eta gazte guztiak gonbidatuak daude. Lanak jasotzeko azken eguna: **abenduak 16**.

Lan guztiak **UMEEN LIBURUTEGIAN** jarriko dira erakusgai Gabonetan.

Eta ez ahaztu gustukoa duzun ipuin hori Olentzerori idazten diozun gutunean ere eskatzea!!!

Parte-hartzaileen artean sariak banatuko dira.





MOBILA



neska baten mobila naiz. Neska horrek Isabela du izena.

Isabelak, denbora pasatzeko, bere mobila dekoratzen du beti: purpurina botatzen dio, brilanteak jarri, margotu eta askotan bere diruarekin erosten ditu funda txuriak, bere modura apaintzeko.

Egun batean, funda polit-polit bat egin zuen eta erabaki zuen eskolara eramango zuela, lagunei erakusteko eta jolasteko pixka bat. Nirekin jolasten ari zenean pixkanaka-pixkanaka ikusten ari nintzen jendea nire inguruan eta entzuten nuen, “Isabela, mobila ekarri duzu”, edo “ezin da mobila ekarri”. Zarata asko zegoenez andereño etorri zen eta esan zion:

- Ezin da mobila ekarri, zertarako ekarri duzu?
- Barkatu, ez dut gogoratu, ez dut berriro ekarriko –erantzun zion Isabelak.

Baina bai ala bai, mobila kendu zion.

Kajoi ilun baten barruan astebate baino gehiago gelditu nintzen. Ni oso triste nengoen, baina banekien Isabela etorriko zela nire bila eta pentsatu ostean gertatu zen. Baina kajoia itxita zegoen eta palanka batekin ireki zuen. Ni pelikula



baten barruan bezala sentitu nintzen. Hori egiten ari zela andereño sartu zen eta galdetu zion:

- Zertan ari zara?

- Ezer, bakarrik... amak esan dit gelatik mobila jasotzeko –esan zion Isabelak, baina hori gezurra zen.


- Bale, hori bada ez da ezer gertatzen, baina hurrengoan esaidazu, bale? –gogoratu zion andereñok.

- Bale–erantzun zuen Isabelak lurrera begira.

Hori egin eta gero, etxera joan ginen biok. Gauean Isabelak pentsatu zuen “hainbeste lan ezertarako, mobil horrek ez du ezertarako balio”. Eta handik aurrera poltsikoan eramaten zuen mobila baina ez zuen asko erabiltzen.

Melanie

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...



zu margolari